

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### 01.02.3 - 19/0000833 Administrazioarekiko auzi errekurtsuan agertzeko epatzea

Bo190627A. Oiongo Udalak ebatzi du Gasteizko administrazioarekiko auzietarako 1. epaitegira igortzea administrazio espedientearen kopia, zeina baita 01.02.3 - 19/0000833 administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzearen arrazoia, Garai Arik SCK jarritako 278/2019 prozedura laburtua, zenbait zuzenketa neurri abiatu arte musika jartzea debekatzen duen alkatearen martxoaren 26ko ebazpenaren aurka.

Eta hori iragarki honen bidez jakinarazten zaie espedientearen interesa izan lezaketenei eta, halaber, jakinarazten zaie 9 (bederatzi) egun dituztela iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aipatutako epaitegian agertzeko, beren legezko interesak aldezteko.

Oion, 2019ko ekainaren 26a

*Alkatea*

*EDUARDO TERROBA CABEZÓN*